# Sephora: sueldos de 900 euros para vender cremas de 1.000

Prekarietatearen eta agintekeriaren aurrean, antolakuntza eta greba feminista

Marzo 2020

www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# Sephora: frente a la precariedad y el autoritarismo, organización y huelga feminista

## Sephora una empresa que gana millones de euros

Sephora es una empresa que forma parte del conglomerado multinacional LVMH líder absoluto en el sector del lujo y dueño de 75 marcas: Christian Dior, Louis Vuitton, Bulgari, Moet Chandon, Loewe, Kenzo, DKNY... En el año 2017 tuvieron una facturación de 140 millones euros, y como otras muchas empresas el reparto de esos beneficios es indignante puesto que las 8 personas de dirección de Sephora cobran alrededor de 125.000 euros anuales.

## Nuestras condiciones laborales son totalmente precarias

Las condiciones que tenemos son muy precarias. En nuestras tiendas estamos menos de 8 trabajadoras, y solo dos de ellas tienen jornada completa (directora y adjunta), mientra que el resto tenemos jornadas parciales desde 12 horas a 30 horas.

El salario de una dependienta a jornada completa es de 912€, pero como tenemos jornadas parciales nuestro salario mensual está entre los 300€ y 700€ euros al mes. Además, nuestros horarios no vienen estipulados en el contrato de trabajo y eso hace imposible la compatibilización con otros trabajos lo que nos condenar a ser “trabajadoras pobres”. Como solemos decir; “Vendemos cremas de 1.000 por salarios de 900”.

Por si todo lo anterior fuese poco, tenemos que trabajar 6 días a la semana, y también los domingos y festivos en los que abre la tienda.

## La estatalización de la negociación colectiva nos condena a la precariedad

El Gobierno de Zapatero aprobó en 2011 una reforma laboral que abrió la posibilidad de que los convenios estatales pudiesen reservarse determinadas materias de negociación, invalidando (total o parcialmente) los convenios provinciales. Esta reforma laboral está siendo utilizada por UGT, CCOO y la Patronal para imponer desde Madrid convenios estatales (construcción, hostelería, metal, restauración colectiva...). La estatalización de la negociación colectiva está suponiendo el empeoramiento de las condiciones laborales de miles de trabajadores y trabajadoras navarras.

En el sector de droguerías UGT y CCOO firmaron en 2014 el primer convenio estatal de ese sector, lo que supuso la desaparición del convenio navarro. UGT y CCOO argumentaron que las trabajadoras y trabajadores navarros de ese sector no iban a empeorar sus condiciones porque las iban a mantener como condición más beneficiosa. Sin embargo, en el segundo convenio se recoge en su artículo 9 expresamente que "no se considerarán condiciones más beneficiosas los derechos que provengan de la aplicación de convenios provinciales o autonómicos que se vinieran aplicando con anterioridad al primer Convenio Estatal". Como consecuencia de ese convenio estatal las trabajadoras del sector en Navarra empeoramos nuestras condiciones laborales trabajando más horas y cobrando menos.

**Llevamos en Huelga desde el 6 de febrero para conseguir un convenio de empresa digno**

El pasado 6 de febrero iniciamos una huelga todos los jueves, viernes y sábado. Nuestro objetivo es conseguir un convenio de empresa con los siguientes contenidos:

- Un salario de 1.200€.
- Queremos trabajar a jornada completa
- Queremos que se implementen medidas para que podamos conciliar nuestra vida laboral y familiar, empezando por trabajar menos días al año.

**La empresa se niega a negociar y nos denuncia por huelga ilegal**

"No estamos obligados a negociar" es la única frase que hemos escuchado por parte de la empresa. Incluso, en lugar de sentarse a negociar, han denunciado a ELA y a nuestras dos delegadas aduciendo que se trata de una huelga ilegal.

Por eso el pasado 18 de febrero tuvimos un acto de conciliación motivado por la denuncia de la empresa por huelga ilegal. Evidentemente el acto de conciliación acabó sin acuerdo. Estamos tranquilas porque esta huelga no es sólo legal, sino que es una huelga imprescindible para que podamos dignificar nuestras condiciones laborales.

En ese acto de conciliación aprovechamos para trasladarle a la empresa nuestra disposición absoluta a la negociación, pero han transcurrido muchos días y la empresa tan siquiera se ha puesto en contacto con nosotras.

**La empresa se alinea con CCOO para torpedear la huelga**

Y por si todo lo anterior no fuese suficiente han aprovechado que una de las trabajadoras de la tienda de La Morea ha decidido marcharse a buscar un mejor trabajo para forzar la revocación de la delegada de personal. A pesar de que el 75% de las trabajadoras están de huelga, se han beneficiado de un sistema que perjudica la representación sindical en ámbitos pequeños quebrando la voluntad mayoritaria de la plantilla en Navarra. Para conseguir esa revocación la empresa se ha apoyado en el sindicato CCOO, presente en la revocación apoyando a las “esquirolas” y convocando nuevas elecciones sindicales en la tienda de La Morea con el objetivo de cargarse la huelga. Donde la empresa no llega, aparece solícito CCOO. Faltar así al respeto de quienes pelean, sean del sindicato que sean, es lo contrario a la conciencia de clase. Triste. Muy triste.

**La caja de resistencia de ELA nos sirve de apoyo**

A pesar de todo lo anterior seguimos en huelga y seguimos peleando, con el apoyo de ELA y la solidaridad de sus más de 100.000 personas afiliadas que aportan parte de la cuota mensual a la caja de resistencia del sindicato para poder sostener ésta y otras muchas huelgas.

**Ya hemos conseguido anteriormente doblegar a la empresa y ahora también lo conseguiremos**

La plantilla de Sephora no es la primera vez que conseguimos doblegar a la empresa ya que consiguieron recientemente ser la primera tienda de todo el Estado en tener un calendario laboral propio y cobrar un plus de casi 3.000€ al año.

**Pedimos a los partidos políticos apoyo, solidaridad... pero sobre todo que actúen y deroguen las reformas laborales de Zapatero y de Rajoy**

El pasado domingo fue el 8 de marzo y vimos como las instituciones y los partidos políticos hacían concentraciones y leían comunicados en los que se reivindicaban como feministas. Por eso creemos que, esta huelga protagonizada exclusivamente por mujeres que queremos dignificar nuestras condiciones de vida frente a una empresa que nos explota, debería ser apoyada por esos mismos agentes. Por todo eso os invitamos a asumir nuestras reivindicaciones, a que nos apoyéis y a que en la medida en que podáis presionéis a la empresa para que se siente a negociar.

Pero sobre todo lo que pedimos a los partidos políticos es que actúen. Todos los partidos políticos del Parlamento de Navarra tienen representación en el Congreso. Por eso lo que les pedimos es que deroguen las dos reformas laborales puesto que esas reformas son las que posibilitan que Sephora nos explote.

# Sephora; prekarietatearen eta agintekeriaren aurrean, antolakuntza eta greba feminista

## Sephora, milioika euro irabazten duen enpresa

Goi-mailako luxuaren sektorean nagusi den talde multinazional batean Sephora partaidea da. Talde horretan 75 marka biltzen dira: Christian Dior, Louis Vuitton, Bulgari, Moet Chandon, Loewe, Kenzo, DKNY... 2017an 140 milioi euroko fakturazioa lortu zuten. Baina etekin horien banaketa benetan samingarria da; izan ere, Sephoraren Zuzendaritzako 8 arduradunek 125.000 euro inguru jasotzen dute urtean.

## Lan-baldintzak erabat prekarioak

Dendetako lan-baldintzak oso prekarioak dira. Zortzi enplegatu aritzen gara, baina bik bakarrik dute lanaldi osoa (zuzendariak eta ondokoak), gainontzekook lanaldi partzialak ditugu, 12 eta 30 ordu bitartekoak.

Denda-saltzaile baten soldata, lanaldi osoan, 912 €-koa da, baina lanaldi partzialak ditugunez, gure hileko soldata 300 eta 700 € bitartekoa da. Gainera, ordutegiak ez daude ezarrita lan-kontratuan, eta hori dela-eta gure lana bateraezina da beste lan osagarri batzuekin. "Langile pobreak" izatera kondenaturik gaude. "1.000 euroko kremak saltzen ditugu, 900 euroko soldatekin" erran ohi dugu.

Hori guztia gutxi balitz bezala, astean 6 egunetan lan egin behar dugu, eta baita dendak irekitzen diren igande eta jai-egunetan ere.

## Negoziazio kolektiboaren estatalizazioak prekarietatea dakarkigu

Zapateroren gobernuak 2011n onetsitako lan-erreformaren ondorioz, negoziazioko gai batzuk erreserbatu daitezke estatu-esparruko hitzarmenetan erregulatzeko, eta hortaz, probintzia-hitzarmenak indargabetu ziren, osoki edo zati batez. Aukera horretaz baliatzen dira UGT, CCOO eta patronala, estatu-hitzarmenak Madrildik ezartzeko (eraikuntza, ostalaritza, metala, sukaldaritza kolektiboa...). Negoziazio kolektiboaren estatalizazioak Nafarroako milaka langileren lan-baldintzak kaskartu ditu.

Drogeria sektorean UGTk eta CCOOek 2014an sinatu zuten lehendabiziko estatu-hitzarmena, eta harrezkero Nafarroako hitzarmena desagertu da. Orduan UGTk eta CCOOek argudiatu zuten sektore horretako nafar langileek ez zutela deus galduko, "baldintzarik onuragarriena" moduan mantenduko zutela. Hala ere, bigarren hitzarmenean berariaz erraten da, 9. artikuluan, "ez zirela baldintzarik onuragarriena moduan hartuko lehendabiziko estatu-hitzarmena baino lehenagoko probintzia- edo autonomia-mailako hitzarmenetatik zetozen eskubideak". Estatu-hitzarmen horren ondorioz sektore honetako nafar langileon lan-baldintzak okertu ziren, lan-ordu gehiagorekin eta soldata gutxiagorekin.

**Otsailaren 6tik greban gaude, enpresa-hitzarmen duin baten alde**

Otsailaren 6an greban hasi ginen, ostegun, ostiral eta larunbatero. Gure helburua enpresa-hitzarmen bat lortzea da, hurrengo eduki hauekin:

- Gutxienezko soldata: 1.200€.
- Lanaldi osoko kontratuak.
- Lana eta familia kontziliatzeko neurriak hartzea, urtean egun gutxiagotan lan egin behar izatetik hasita.

**Enpresak uko egiten dio negoziatzeari, eta salatu gaitu legez kontrako greba egiteagatik**

"Ez gaude beharturik negoziatzera" izan da enpresaren erantzun bakarra. Areago, negoziazioari ekin beharrean, ELAren eta gure bi ordezkarien aurkako salaketa jarri dute, legez kontrako greba delakoan.

Horregatik, otsailaren 18an adiskidetze-ekitaldi bat izan genuen, enpresaren legez kontrako grebaren salaketaren ondorioz. Ez dago erran beharrik adiskidetze-ekitaldia adostasunik gabe bukatu zela. Gu lasai gaude, greba legez kontrakoa ez izateaz gain, ezinbertzekoa delako, gure lan-baldintzak duindu ahal izateko.

Adiskidetze-ekitaldian gure negoziazio-borondatea azaldu genion berriro enpresari, baina ordutik hona egun anitz iragan dira, eta enpresa saiatu ere ez da egin gurekin harremanetan jartzeko.

**Enpresak bat egin du CCOOekin, greba zapuzteko**

Eta hori guztia gutxi balitz bezala, La Moreako dendako langileetako bat bertze lan baten bila joan dela probestu dira pertsonaleko ordezkariaren errebokazioa behartzeko. Langileen %75ak greban egon arren, indarrean dagoen sistemaz baliatu dira, esparru txikietan ordezkaritza sindikalaren kaltetan joan arren, Nafarroako plantillaren gehiengoaren borondatea urratzeko. Errebokazio hori lortzeko, enpresak CCOO sindikatuaren sostengua bilatu eta lortu egin du. Eta hortaz 'eskirolen' alde agertu da, eta La Moreako dendan hauteskunde berrietarako deialdia egin du, greba hondatzeko asmoz. Enpresa halako puntu bateraino iritsi ezinik badabil, hantxe dago CCOO sindikatua beti ere laguntzeko prest. Borrokan ari direnen aurka egitea, grebalariak sindikatu batekoak edo bertzekoak izan, klase-kontzientziaren kontrakoa da. Eta samingarria da, oso.

**ELAren erresistentzia-kutxa gure sostengua da**

Hala eta guztiz ere, langileok greban eta borrokan jarraitzen dugu, ELAren laguntzaz, eta 100.000 baino afiliatu gehiagoren laguntzaz. Izan ere, afiliatuek hileroko kuotaren zati batez sindikatuaren erresistentzia-kutxa hornitzen dute, gure grebari eta bertze hainbat grebari eusteko.

**Bertze behin ere zuzendaritza makurrarazi genuen, eta orain berriz lortuko dugu**

Oraingo hau ez da izanen lehen aldia Sephoraren zuzendaritza irabazi dugula, orain dela gutxi lan-egutegi propioa eta ia 3.000 €-ko urteko plusa lortu baititugu, eta horretan Estatu osoko lehen denda izan gara.

**Alderdi politikoei babesa, elkartasuna eta abar eskatzen diegu, baina, batez ere, Zapateroren eta Rajoyren lan-erreformak indargabetu ditzatela**

Joan den igandea martxoaren 8a izan zen, eta ikusi genuen nola erakundeek eta alderdi politikoek elkarretaratzeak egiten zituzten eta komunikatuak irakurtzen zituzten feminista gisa aldarrikatzen zirenetan. Horregatik uste dugu, esplotatzen gaituen enpresa baten aurrean gure bizi-baldintzak duindu nahi ditugun emakumeak soilik protagonista dituen greba hau, eragile horiek berek babestu beharko luketela. Horregatik guztiagatik, gure aldarrikapenak onartzera gonbidatzen zaituztegu, babesa eman diezaguzuen eta, ahal duzuen neurrian, enpresari presioa egin diezaiozuen, negoziatzera senti zaitezten.

Baina batez ere alderdi politikoei eskatzen eskatzen dizuegu bi lan-erreformak indargabetzeko, erreforma horiek ahalbidetzen baitute Sephoraren explotazioa.

# SEPHORRAN
## A-NUESTRA-CUENTA







**Vendemos cremas de 1.000 euros**
**con salarios de 900 euros**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA